

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko azaroaren 27a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Iruñerria • Euskarazko produktu guztiak katalogo bakar batean.

Patxi Huarte • «Komiki bilduma honetan ideologia nabarmena da».

Monasterioa zinema-plato bilakatu zenekoa



• MIKEL SAIZ

Joseba Salegi zinemagile altsasuarra Ione sube al cielo bere lehen film luzea filmatzen ari da egunotan Abartzuzan, Irantzuko monasterioan. Lekaime etxe batean filmaketa talde batek pelikula bat nola egiten duen kontatzen da pelikulan. Ustez oso ezberdinak diren bi munduk, zinemarenak eta mojenak, talka egingen dute. Komedia ukituarekin, uste baino ezaugarri komun gehiago dutela frogatuko da.

Bera ●

Bertsolariak Xaltoan

Nafarroako bertsolari gazteentzako txapelketa gaur hasiko da, Beran

Nafarroako bertsolari gazteenak biltzen dituen Xalto sariketa gaur hasiko da Beran, eta hurrengo bi ortziraletan Hendaian eta Goizuetan ariko dira kantuan. Aurten, Nafarroako Txapelketan parte hartzen dutenek ez dute abestuko, gazteenei aukera bat emate aldera.



Iparaldeko eta Nafarroako bertsolariak mingaina neurtzeko aukera izanen dute. Iazko irabazleak, Xabier Legarreta aranoarrak, aurten ez du parte hartuko. ● ARTXIBOKOA

NAFARROAKO BERTSOLARI GAZTEENTZAT jokatzeko den Xalto sariketaren bortzgarren aldia gaur abiatuko da, Beran. Joan den urtean bezala, aurten ere afalostean mahai inguruan ariko dira bertsolari gazteak, lotsa gainditzea errazagoa izan dadin. Orotara 15 bertsolari ariko dira aurtengo Xalto sariketan. Antzinatik, horietako inork ez du irabazi sariketa hau.

Nafarroako eta Iparraldeko bertsolari gazteek kantuan aritzeko aukera guti izaten dutela ikusirik, Nafarroako Bertsotale Elkartearen inguruan Zortziko Ttikia elkarte osatu zuten gazteek. Helburua, bertzeak bertze, gazteentzat jendaurrean aritzeko aukerak eskaintzea izan da.

Hori horrela, bi urtez txapel-dun ateratzen zenak txapelketan

berriz ez kantatzea deliberatu zuten. Estitxu Arozenak irabazi zuen lehen bi aldietan, eta Xabier Silveirak hirugarrena. Silveirak urte hartan bertan Nafarroako Txapelketa eskuratu zuenez joan den urteko gazteen txapelketan ez zuen kantatu, bere lekua berriei uztearren. Xabier Legarreta aranoarrak irabazi zuen joan den urtean Goizuetan, beraz, aurten ez du parte hartzerik izanen.

Xalto sariketako lau aldietan garaile atera diren hiru txapel-dunetatik bik Nafarroako Txapelketa irabazia dute, horietatik bitan Estitxu Arozenak, eta bertze behin Xabier Silveirak. Xabier Legarretak txapela jantzea lortu ez duen arren, joan den urtean bigarren izan zen txapelketan.

Hamabortz bertsolari

Iparaldeko eta Nafarroako bertsolariak bilduko dira Xalto sariketan. Horietatik anitzentzat lehenbiziko aldia izanen da, eta batzuentzat eskola arteko txapelketatik bertze pauso bat emateko tenorea izanen da. Gaur Berako Gure Txokoa elkartearen egindako saioan, Iparraldeko hiru gazte ariko dira: Xumai, Amets Arzallus eta Miren Artetxe; Julen Zelaieta, Igor Lasaga eta Beñat Telletxea beratarrak eta Eneko Lazkoz eta Joseba Beltza etxarriarrak. Gaur zortzi, Hendaian, Eneritz Zabaleta, Itsaso Arzallus eta Sustrai Kolina ariko dira Iparraldetik, eta Hegoaldetik, berriz, Erika Lagoma, Ekhine Etxepetleku, Alaitz Rekondo eta Xabier Terreros lesakarrak ariko dira aurrez aurre.

Zortziko nagusian bina bertso kantatu beharko dituzte ofiziotan, eta bertze bina neurri ttikian. Ondotik, lau oinekin bertso bat osatu beharko dute, eta kartzelan gai bati bertso bat kantatu beharko diote. Bi saioetatik puntu gehien biltzen duten sei bertsolariak igaroko dira abendua-ren 11n Goizuetan egindako finalera. Urtero legez, Goizuetan izanen da finala, bertakoa baitzen Xalto bertsolaria.

Bertso eskoletan egiten duten lanaren fruitua da txapelketa. Gainera, ez da ahantzi behar bertso eskola horietan irakasle moduan ari diren gehienak Nafarroako bertsolari gazteak direla, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez edo Joxema Leitza, kasu.

→ Jon Abril

Izaba ● Udalak seinaleak jarri ditu bisitariarentzako

IZABA TURISTIKOKI HOBEKIAGO antolatu eta bideratzeko helburuarekin eta bisitaria ongi gidatzeko bereziki margotutako seinaleak jarri ditu bertako Udalak. Izabara joaten den turista oro ahal den hobekien informatzeko eta gidatzeko asmoarekin herriak eskaintzen dituen eta interes turistikoa duten hainbat zerbitzuren berri ematen du martxan jarri duten ekimenak.

Marratzutako seinaleon kokapena berria da Nafarroan. Angel Luis de Miguel, Izabako alkateak dioenez, seinaleekin «bisitari guztiek irakurketa bera izatea lortu nahi da». Hortaz, Izabara joaten denak interes gehien duten tokien eta eraikin publikoen kokapena zein den seinaleon bidez jakin ahal izanen du, joan den udan irekitako Etnografi amuseo, kasu.

Izabako Udalak bi helburu nagusi bete nahi ditu abiatu berri duen ekimenarekin. Batetik, turista herriko barnealdean sartzea nahi luke, arkitektura aldetik hobekien zainduta-ko gunea baita. Bestetik, herria zeharkatzen duen errepidetik bazterturik geratu diren zerbitzuak bultzatzea nahi du. Ildo horretan, herriko Turismo Bulegoak egunero eskaintzen duen informazio zerbitzuaz landa, kalitatezko turismoa emateko bidean jarraitu nahi du Udalak, beste baliabide batzuk erabiliz.

→ Fernando Hualde

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Goizoko zazpiak eta laurdenetan ernatu (iratzargailuak bederen ordu horretan jotzen du). Ohatzeko goxotasunetik kanpoko hotzera (edo izotzera) atera, nire etxeko ur beroa ere hormatua baitago. Ez dut inoiz kronometratu baina errango nuke pijama kendu eta galtzerdi, kulero, galtza bakero, sujetadore, jertse eta botak jantzeko ez ditudala bortz segundu baino gehiago erabiltzen. Artista bat naiz etxeko bata gainetik kendu gabe arropa hori guzia paratzen (zin dagit ez dudala bata kentzen, serio). Goizeko hoberena gosaria izaten da; goxo-goxo hartzen ditut Xorroxinekin nire kola-kaoa eta gailetak. Lehendabiziko

Hotza

xurrupa hartu orduko hasten da nire gorputza 36 graduak berreskuratzen. Hortzak garbitzera komunera joatean temperatura bere horretan mantentzen zait oraindik, baina abrigoa belarrietaraino lotuta etxetik ateratzen naizenean, zero gradu azpitik dabilta nire neuronak, ziur nago! Eskerrik hilotzagoera horretan segundu batzuk bertzerik egoten ez naizen. Kotxean sartu, motorra eta kalefakzioa martxan paratu, eta oraindik abrigoa soinetik kendu gabe, Iruñerako bidea hartu. Belatetik barrera Berriozar, Burlata, Aurrabia edo Txantrea. Goizeko bederatzietarako ikastetxean egon behar, Lazkao Txiki, doinu, zortziko txiki; zaz-

pi eskale, errima eta horrelakoen inguruan ahalik eta errezen, ahalik eta ximplen, bederatzita eta hamaika urte bitarteko haurrekin lan egiteko. Ez da erraza, batez ere haur batzuek, euskara, ikasteko tresna gisa bakarrik darabiltelako. Ez da erraza, batez ere gehienek bertsoa zerden jakin bai, baina guti gehiago dakitelako bertsolaritzari buruz. Ez da erraza, batez ere klase bakotxean sei ordu bertzerik ez ditudalako ematen. Hala ere, hagitz erraza da klasea ematea, haurren ilusioa izugarria delako. Klasean sartu orduko egun guzirik kentzen zait goizean goiz hezurretaraino sartzen zaidan hotza.



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu


Neotribalismoa

Tematia, ametsgaizto berak bisita egiten dit gauero. Tribu txiki batean bizi naiz mendien magaletan, basoaren ondoan. Nire burua txabola barruan ikusten dut ehizatutako azken oreinaren kiratsarekin batera. Oreina ez da nolana hikoia, alajainkoa!, ehiztari trebea naiz gero. Bapatean buelta bat emateko gogoa piztu eta banao herrikeren kale bakarretik gora gainerako tribukideak agurtzen ditudan bitartean. Esna egongo banintz bezala aditu ditzazket «Aupa Xabi a zer nolako oreina harrapatu duzun!» eta nire «ez da hainbesterako gizona!» erantzun faltuak. Hau da gehien gustatzen zaidan atala. Niregatik balitz kalean gora kalean behe- ra emango nuke amets guztia. Baina ametsaren jabea ez naiz ni. Batek daki nor den jabea. Deabru zikin eta txiki bat izango da. Eta kondentua nago, eta ez dut beste irtenbiderik, eta derrigorrez Juaristiri sari bat eman diotela entzun behar izaten dut hala esaten didalako batek, eta haserretzen naiz ametsaren zati ilunean murgiltzen naizelako orduan. Juaristi. Ongi ezagutzen dut noski. Nire txabolaren metro erdira bizi da. «Orein haundia harrapatzeagatik baldin bada nik badut txabolaren bat haundiagoa»-erantzuten diot nik ametsaren alde ona berreskuratu nahiean. «Ez ez esaten didate- kontua da epopeia bat sortu duela, kantu epikoa». Segituan zazpi metro exkaxetara dagoen plaza nagusira abiatzen naiz sari banaketan parte hartzeko. Han Juaristi eta epaimahaiak aurkitzen ditut. Ni txistuka hasten naiz oso modu tribalean «tongo! tongo! jajajajaj! tongo redios!». Herriko polizi bakarrak, bera ere epaimahikidea, nire neskalagunaren ahizparen adiskide baten semea dena (familiakoa ia ia) ongi tratatzen nau halae- re, «hala xabi, benga, faborez, joan zaitez txabolara iskanbilari- rik atera gabe!», baina nik kasurik ez eta azkenean kolpatzen nau (oso modu tribalean kolpatu ere). Hemen bukatzen da ametsgaiztoa. Euskaraz egiten dut amets. Nere neskalagunak «aski da!, aski da!» oihukatzen dudala esan dit. Ametsgaiztoa mila bider errepikatu da. Ez dakit zenbat sari eman dizkioten Juaristiri dagoeneko. Honek amaigabea dirudi.

Iruñerria •
Euskarazko guztiak katalogo bakarrean

Aisialdirako makina bat produktu bildu ditu liburuxkak

Jostailuak, jolasak, aldizkariak, bideoak, liburuak... Eguberrietako erosketak egiteko gida aproposa izan daiteke euskara zerbitzuek kaleratutako katalogoa



Euskara zerbitzuek kaleratutako katalogoaren azala.

EMAN ZUEN SEME-ALABEI EUSKARAZKO produktu hauetaz gozatzeko aukera, hori baita behar duten hazia euskarak izan dezan beneteko bizia». Horrela amaitzen da Euskarazko Produktuen Katalogoaren hitzaurrea. Nolabait ere, ederki aski laburtzen du Nafarroako udaletako euskara zerbitzuek katalogo hau kaleratzerakoan izan duten asmoa.

Gabonak ere gertu dira, eta opariak erosi beharra izaten da. Bizitza euskaraz egin nahi duenak, opariak ere euskarazkoak egin beharko lituzke. «Askotan, gurasoek hori nahi izaten dute, baina behar besteko informaziorik ere ez dute izaten. Orain, behintzat, ez dute aitzakia hori», dio Paula Kasares, Baztango euskara teknikariak. Izan ere, gurasoei zuzendutakoa da, batik bat, katalogo hau, eta haiengana helarazteko hainbat bide erabili dira.

Zabaltzen eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren

dirulaguntzaz, 16.000 ale argitaratu dituzte. 45 orrialdeko liburuxkak marrazki eta argazki ugari ditu, eta kolore biziek berehala erakartzen dute irakurlea. Paula Kasaresen esanetan, «liburu eta diskoei dagokienez, berrikuntzak baino ez ditugu sartu. Informatikaren atalean, ordea, gauza askorik ez dagoenez, dagoen guztia sartu dugu ia-ia». Produktu ba-

koitzaren argazkiaren alboan, ezaugarri nagusiak; salneurri orientatiboa eta zein adinetako haurrentzako egokiak diren adierazten da. Baliteke denda batetik bestera prezioetan aldatetaren bat izatea. Gune horietan, bestalde, katalogoko produktu horiek badituztelako adierazgarri bat izango.


→ Urko Aristi

Lizarra
•
San Andres feria igandean

SAN ANDRES EGUNA DATORREN asteartean bada ere, etzi ospatuko da Lizarran haren omenez urtero egiten den feria. Haatik, beste zenbait, ekitaldi aste barruan egingen dira. Bihar, bertako txakurren erakustaldia izanen da Santiago enparantzan, 11:30etan, eta arratsaldeko 16:00etan txakur lehiaketa egingen da. Txakur ederrena, onena, barregarriena eta jabearen antza handien duena sarituko dituzte. Ekitaldia aurreneko urtez egingen da Lizarran, eta horrekin batera berrikuntzarik ere izanen da: Nafarroako pottoka arabiar arrazako zaldiekin gurutzatzeko egin diren saiakeren erakusketa. Ekitaldia igandean izanen da Los Llanos pasealekuan, 11:30etan. Ondoren, zaldi eta zaldunen trebetasuna agerian jarriko duten hainbat erakustaldi egingen dira.

Dena den, urtero jende gehien erakartzen duen ekitaldia ganadu feria da. Bbadakigu duela 600 urtetik egiten dela feria hori Lizarran. Garai batean ganadu feriak hemeretzi egun irauten bazuen ere, egun egun batekin konformatu behar. Hortaz, aurten ere pottokak, behorrak, zaldiak, txahalak, bigantxak, astoak eta abarrak saldu edo erosteko izanen dira Santiago plazan. Foruen plazan, berri- z, Urbasako gazta dastaketa eta artisau erakusketa. Orotara ehun artisau bilduko dira. Azkenik, astelehenean hamaiketako banatuko zaie doan Foruen enparantzara joaten direnei.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Berako Fundizioak pribatizatzen

Ttipi-ttapa aldizkariak Bortzrietako lantegien gaia landu du azken zenbakian, Aitor Arozena kazetariak sinatu erreportaiaren bidez. Bi lantegiren inguruko artikulua idatzi du **Ttipi-ttapa**ko kideak. Savera eta Funvera, alegia, lehenengoak bigarrenaren kapitalaren % 51 erosiko baitu. «Duela bortz urte, Berako Fundizioak krisi larrian zegoenean, erosi zuen Nafarroako Gobernuak. Bertze aterabiderik ez omen zegoen: administrazioak eskutik hartu edo 1917an sortu zen lantegia itxi. Orditik honat nabarmenki aldatu dira kontuak. Langileen kopurua bikoiztu eta fakturazioa ere goiti egiten ari da. Iaz, aspaldiko

urtetan lehen aldiz, irabaziak izan zituen Funverak. Nafarroako Gobernuak eskua askatzeko tenorea ailegatu dela uste du eta hasierako akordio baten arabera, kapitalaren % 51 salduko dio Berako bertako Savera enpresari. Epe ertainean gainerakoa ere bertze sozio bati salduko omen dio administrazioak».

Ttipi-ttapako artikulua azpimarratzen duenez, enpresaren esku aldatetak enpleguan eta produkzioan eragina izanen du; inbertsioak ere aurreikusi dira: «Savera eta Nafarroako Gobernuak prestatzen ari diren plangintzaren arabera 600 edo 700 milioi pezetako inbertsioa egingen da Fundizioetan,

dirutza horretatik 250 bat milioi, jubilazio eta aurrejubilazioak ordaindu eta zorrak ordaintzeko erabiliko delarik. Nafarroako Gobernu eta Saveraren ustez, Fundizioak produkzioan eta enpleguan eragina izanen duen errekonbertsioa behar beharrezkoa du. Funveraren produkzioaren % 75 sortzen duen kamioien balaztak egiten segituko dute. Autoen sektorerako tortsio-barbaren fabrikazioa, ordea, usteko asmoa dute hiru urteren barrenean. Aktibitate honek 46 langile enplegatzen ditu eta ez da balazten produkzioarako beharko direnekin inondik inora orekatuko».

Errebolta monasterioan

Abartzuzan, Irantzuko monasterioan, 'lone sube al cielo' pelikula filmatzen ari da Joseba Salegi altsasuarra

Joseba Salegi zinemagile altsasuarra *lone sube al cielo* bere lehen film luzea filmatzen ari da egunotan Irantzuko monasterioan. Lekaime etxe batean filmaketa talde batek pelikula bat nola egiten duen kontatzen da. Ustez oso ezberdinak diren bi munduk, zinemarenak eta mojenak, talka eginen dute. Komedia ukituarekin, uste baino ezaugarri komun gehiago dituztela frogatuko dute.

LIZARRATIK KILOMETRO GUTXIRA, ABARTZUZAN, Irantzuko monasterioan, zalaparta da nagusi egunotan, filmaketa talde batek monasterioa okupatu baitu. XII eta XIV. mendeko zisteriar eraikineko isiltasuna eta sosegua apuritu du Joseba Salegi zuzendariaren *lone sube al cielo* filmaketa taldeak. Pelikula monasterioak duen XII. mendeko klaustro dotorean ari dira grabatzen. Bertan bizi diren hiru erlijiosoak bisitetara ohi-tuak badaude ere —bisita gidatuak eta aterpea eskaini ohi dute— filmaketa taldea osatzen duten 65 lagun inguruk beste kolore bat ematen diote grisa nagusi den monasterioari. Taldea goizeko 08:00etan hasten da filmatzen eta, otordua egiteko hartzen duen ordua kenduta, arratsaldeko 19:00ak arte errodatzen du. Harri landuez egindako eraikinean hotz egiten badu ere, zuzendariaren, aktoreen eta teknikarien arteko giroa gori-gori dago. Plano bat ez dakit zenbat bider errepikatzeak etengabeko mugimendua sortzen du pelikula grabatzeko egokitu den klaustroko agertokian. Joseba Salegi oso urduri dago, sekuentzia bat grabatzen ari direnean bakarrik esertzen da, gainerakoan, aginduak ematen eta isiltasun eske dabil.

«Sekuentzia hau bazkaldu baino lehen bukatu behar genuen, baina aktore asko daude eta kamera mugitzen hasten bazara dena nahasten

Joseba Salegi:

«Printzipioz, gizartean kontrajarriak dauden bi munduren arteko lotura aztertu nahi nuen. Zinema, barrutik ikusten baduzu, uste baino moralistagoa da, eta bizitzaren oso ikuspegi ohikoa dute horretan aritzen direnek. Zinema munduaren isla da».

da. Gaur (asteartea) uste baino motelago bagoaz ere, filmatzen ari gara kalitatezkoa da», dio zuzendariak, ezinegonak hartuta.

Zinema zinemaren barruan

Salegik «gauzak kontatzeko eta probatzeko gogo» zuen, eta hori egitea erabaki du bere lehen film luzean. Hortaz, filmaren bidez bilatze prozesu bat garatu nahian, antzerkiaren teknikak zinematzen salatu da. «Zineman antzerki interpretazioa berrekuratzeko salatu ari naiz. Antzerkiko eszenariak egiten ari naiz, baina grabatu egiten dudanez, ikusleei egiten dioten entsegu hoberean eramaten dut. Zuzendari bezala bi alde ditudalako: gauzak nola egin eskatzen duena, eta, era berean, ikusle naiz», azaldu du otordurako atsedendia baino lehenagoko azken sekuentzia grabatzean. Ordu eta erdi iraungo duen laneko minutu bakan batzuk hartzen goiz oso bat eman du taldeak. Egiten ari naizen entsegu hoberekin entsegu orokorra egingo dut, baina salbuespen batekin, muntatu dudan entsegu orokorra horretan eta estrenaldian erakusten dudanean aktorea bera ikusle izanen dela. Eta hori da zinemaren magia», gaineratu du. *lone sube al cielo* pelikulan zinemaren fikzioa eta erreallitatea nahastean dira maiz, eta batek ez daki nor den benetako zuzendaria, Salegi bera



Pelikulan grabatzen diren filmaren zientzia

Mikel Saiz

edo filmean rol bera hartzen duen Karlos (Martxelo Rubio aktorea). Gidoia zuzendariarena berarena eta Jose Antonio Vitoriaarena da, eta Salegik berak egindako beste pelikula batean du hasiera.

Aita-ama batzuen arteko maitasun istorioa egin nahi izan zuen, baina garestia zenez baztertu eta jadanik bizi izandakoa kontatuko du Salegik. «Ama fundatzailearen bizitza egiteko deituz gungu erlijio ordena batek, eta hartan oinarritu da gidoia. Beste istorio bat asmatu dut, eta pelikula

hartan izan nuen sentipena kontatzen da», azaldu du zinemagile altsasuarrak. Ustez gizartean kontrajarriak dauden erlijiosoen eta zineman murgilduta dabilen jendearen artean sortzen diren harremanak azaltzen ditu lekaime etxe batean filmaketa talde batek pelikula bat nola egiten duen kontatzen duen istorio honek. «Printzipioz gizartean kontrajarriak dauden bi munduren arteko lotura aztertu nahi nuen. Zinema barrutik ikusten baduzu, uste baino moralistagoa da, eta bizitzaren oso ikuspegi

ohikoa dute horretan aritzen direnek. Zinema munduaren isla da», dio Salegik. Finean, zinemaren munduari emandako begirada bat da. «Interesatzen zitzaidana da ustez mundu espiritual eta ez-materialistarekin lan egiten duten bi alderdiok elkartzen direnean helburu bakarra dutela ikus-taraztea, euren xede merkantilista eta botere nahia», gaineratu du.

Film luze baterako lehen gidoia zuenez, umore ukitua eman nahi izan dio Salegik, eta komedia bat egiten dihardu. Aktoreen mundua ulertu

nahirik, eta kritiko izateari utzi gabe, hasten den jendeari omenaldi bat egin nahi dio Salegik. Horretarako, aktoreek atsegin zuten gidoia egiten saiatu da. «Kontatzen ari naizen istorioa sinplea da, gehienek bizitza kontatzen ari naizelako. Baina pertsonaia dimentsio osoan agertzea nahi dut. Batzuetan onak eta bestetan txarrak, eta, gainera, garatu egiten dira», argitu du. «Ikustarazi nahi nuen zein zaila den lanbide honetan sar-tzea. lone protagonistak (Anabel Arraiza) uste du pelikula batetik deitu dutelako aktorea dela. Eta oso oker dago, eta pelikula erakutsiko dio akto-re izateko prestatu egin behar duela eta zinema egiten jakin», azpimarratu du.

Protagonista askoko pelikula

Zuzendariaren irudiko, protagonista askoko pelikula da. Hori frogatzeko Salegik bere lehen film luzea egiteko euskal agertokietan ezagunak diren hainbat izen aukeratu ditu: Klara Badiola, Kike Diaz de Rada (*yuppie*-arena eginez), Martxelo Rubio eta Ana Isabel Arraiza. Aitzpea Go-naga edo Patxi Santamaria. Hori gehitu behar zaizkie Mario Pardo aktore espainiararen esperientzia edota Amara Carmona hasi berriaren lan egiteko gogoak. Monasteriora pelikula filma-tzera joan den taldearen eztabaida jasotzen den sekuentzia filmatzen den bitartean, Amara Car-mona eta Ana Isabel Arraiza hotza uxatu nahian gira eta buelta dabilta. Arraizak adi-adi jarraitzen du filmaketa eta talde teknikoak egiten dituen material aldatzeko. ETBko *Goenkale* seriean oihutua, lakuntzarak bere lehen film luzea du. «Lehen aldian dut, baina oso gustura nago bai jendeari bai egiten ari naizen per-sonaiekin. Gidoia irakurtza asko gustatu zitzaidan. Bukatzean ikusji behar zer ateratzen den». Dena dela, harriduta dago esena bat grabatzeak zenbat lan ematen duen. «Telebistatik zinemarako saltoa oso handia da. *Goenkale*-n egunean kapitulu bat egiten dugu, eta hemen, zineman, motelagoa da. Plano bakoitza behin eta berriro errepikatzen da, ongi gelditu arte. Dena dela, zinema politagoa iruditzen zait. Ez da aukera askorik izaten, eta tokatzen denean aprobetxatu egin behar dira».

lone sube al cielo film luzea azaroaren 12an hasi zen filmatzen Salegi Donostiako Apaizgaite-gian. Dena uste bezala badao, abenduaren 23an bukatuko da grabaketa. 130 milioi pezetako aurrekontua du (5,2 milioi libera). Gaztelaniaz errodutuko bada ere, euskarazko bertsioa ere egiten du Zine Zero produktorak, aktore gehie-nak euskaldundak baitira. Estrenaldia, berriz, udan egiten dute, Europako zinematzen batean, Donostiakoan bertar? Auskalo! Hori etorki-zunak erakutsiko du.

→ Irene Arrizurieta



Joseba Salegi zinemagilearen agindutan hainbat aktore eta tekniko daude egunotan. ● MIKEL SAIZ

Joseba Salegi Pelikulazuzendari

«Bizitzaren nire interpretazioa kontatzen ari naiz»

JOSEBA SALEGI ZUZENDARI ALTSASUARRAK filmaketaren hartaldetik hartaldira grabaketak utzi dion tarte eskasean erantzun digu. Zuzentzeko presarik ez zuela dio, eta lanbidean urteotan ikasitakoak plazaratzen saiatu dela. ■ **Zineman hamalau urte badaramazu ere, lehen film luzea duzu hau?** Konturatu nintzen artisau zi-nema asko zegoela, baina ez hiz-kuntza lantzen zuenik. Gainera, hizkuntzaren aurkikuntza ezagu-tza zehatz batzuk izanda baka-rrik lor zitekeela uste nuen, eta horregatik joan nintzen Madri-le-

ra, unibertsitatera, zuzendaritza karrera ikastera. Zineman lanean hasi nintzen, baina behin ere ez dut izan presa-rik zuzentzeko. Pelikula bat zu-la dio, eta lanbidean urteotan ika-sitakoa plazaratzen saiatu dela. ■ **Beraz, nahiago izan duzu lan-bidean eskarmentua hartu zuzentzeko arduraren hasi bai-no lehen?**

etako Sarobe zinema erditudan ikasleei beti esa-tzen zinemari arteaz duen ikindu behar zaiola. Lau aldaude, horiek egiten dute za, eta beste asko itxuraz-ta, nahiz eta horiek egin-ga gehienak. Artea ez da en, batek badu edo ez du. ■ **Ez zenuen eskaintzarik jaso?** Produktorek segurura jotzen dute. Izen bat baduzu zuzentzen duzu, eta ez baduzu, ez. Izena

Albaniako konkistan. Aitaren Talbot 150 bat pelikulako aktore-ak garraiatzeko erabili nuen. Lau urtetan hamasei pelikuletan Espainiako aktore hoberekin ga-rraiatzeko ibili nintzen: Paco Ra-bal, Vitoria Abril edo Angela Moli-na. Haiek kontatutakoarekin ikusten hasi nintzen ofizioan zeu-den arazoak. Horrek sentsibilita-te bat sortu zidan; horrenbestez, aktoreak errodatzeko eroso egon daitezkeen saiatzen naiz. ■ **Ez zenuen eskaintzarik jaso?** Produktorek segurura jotzen dute. Izen bat baduzu zuzentzen duzu, eta ez baduzu, ez. Izena

duzu zuzendari zarelako edo harreman politikoak dituzulako. Ni bezalako teknikari bat bazara, oso ona izango zara zuzen, bai-na nahiago dute zuzendari bezala jarraitzea pelikula bat eskaintzea baino. Hori dela eta, eta itxaroten egon beharrean, konturatu nin-tzen nik aurkitu behar nuela pelikula bat neure burua aurke-zteko zuzendari moduan. ■ **Zer moduzkoa suertatzen ari da zure lehen erronka?** Ez da erronka, zuzendari izan nahi badut, film luze bat egin behar dut, behartu egiten naute. Zuzendaria naizela esateko

modu bat da. Laguntzaile izatetik zuzendari izatera pasatzeko asko aldatu behar duzu jarrera. Peli-kula unibertsoaren aldetik balo-ratu behar duzu, gero pelikula-ren unibertsoa bera sortzeko. ■ **Pelikula bukatu eta gero, zer?** Abentura hau bukatuta bizitza aldatuko zait. Orain arte oiharkabean pasatu naiz, techni-kari bezala lan egiteak beste modu batean jokatzeko esan nahi baitu. Zuzentzen jarraitu nahi nuke. Al eta amerikarrek ditzea espero dut.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Periko Alejandriaz oroit

«Iruñeko patroiairen bezperan Nafarkaria zaleon gozagarrirako, zer egokiago irunseme xalo baten istorioaz aipu egitea baino»



ALEJANDRIAKO PERIKO EZARRI zioten grazia, bataio eguneko santua baitzen. Jaiotzeguna, baina, segurtamen osoz ezin jakin, 1817.eko azaroaren 25ean orduan Jauregi-ko aldapan zegoen Etxandiko tornuan laga zuten eta, txatar garbitan eta urak hartuta -jalo eta hurrengo bi egunetan behiala eman ohi zen ur azukreduna, hots-. Esan eta nasaiegi errepikatu izan da, gerok ere bai, Iruñean antzezle zegoen italiar baten semea zela gure Periko, alta, argi geratu da ez zela horrela izan, eta Goñi abizena ez izan arren, ia seguru da Iribarrenen gora handiko idurimenaren keinua genuela, berri zehatzagorik ezean, interpretatzen jakin izan ez dena.


Urtea ahitu aitzinetik, Etxandikoek non sartu idoro zioten Perikori. Descalzos karrrikako 32 zenbakian, Kristobal Esainen etxean hain zuzen ere, 41 urteko zuriaindar hau, beronen emaztea zen Mikaela Ezkurra berriotarra eta etxe berean apopilo zegoen Angel Ihaben jostun itsasorra izan ziren Perikoren gurasordeak. Etxean, jostuna izan ezik, artzainak ziren lanbide, eta ikasketa haundirik egin gabe, gazte hasia zen ardi lagun Periko, baita 1828.ean Kristobal leinuburu txiropa zendurik, sendi osoa Errotxaparea aldatu zenean, Perikoren arrebardenera.

Karlistadetan galduea zaigu haren arrastoa, alta ez dirudi soldadu ibiliko zenik. Halako batean agertzen zaigu Perikoren hatza paperetan, zapatagin ikasle, baina ezin zehaztu zein neurritan halaxe izan, edota udalarekin diru kontuak garbitzeko aitzaki garbia zenez. Izkuta ezina zaiguna zera da, letrak ikasteko galdutako aukera, non edo non kausitu zuela, idazle fina agertzen baizitzailgun, neurri bederik ere eskolatua.

1854.ean udalak berak udal garitegian funtzionari lan egiteko egin eskariari uko egin zion, gauza bitxi bezain arraroa. Bitxia

errefuxatzea, arras lanpostu ona eta desiratua baitzen; arraroa, berriz, udala izatea eskeini zuena. Handik gutxira, 1848. ez geroz, udalaren bigarren pregoilaria izan zen bulta laburrez, Juan Belberren ondorean, turuta ta guzti, harik eta 1852.eko ekainean, aurreko egunetan erabat mozkor eginda kartzeleratu zutelako, bere kargutik kendu zuten arte; Pedro Salbide izan zen bigarren pregoilari berria. 1855.era bitartean beste dozenaka alditan atxilotu zuten antzeko arrazoiengatik. Dena dela, 1861.etik Karrika Nagusian Nikolas Esain analordearekin bizi zenetik, zeharo aldatuta genuen; ordudunik idazle sarturik, 1869.ean bigarren aldikoz pregoilaria izan zen, eta 1871.ean Pellejerria karrikara joan zen bizitzera bakarrik, estrainekoz. 1872.eko azaroaren 6an Urepeleko Maria Zurginarekin ezkondu zen, baina gutxira, 1875.eko irailaren 28an, zendu zitzaigun, Iruñeko setioa bukatu ostean.

Egin zuen lehenbiziko lan ezaguna 1862.ean agertu zen: *La cartera de Perico: llena de mentiras, verdades, sandeces y necedades*, listu ekoizle batek egin. Heldu zen urtekoa, *El pamplonés: guía de la ciudad y manual de curiosidad*, San Nikolas karrrikako 17. zenbakian zegoen Sisto Diaz-Espadaren etxean argitara ateratako 108 orrialdeko izkribua dugu. Idazkiaren atarikoan 15 egunetan izkiriari lana dela aitortzen bazuen ere, handisko bazen ematen zuen datu elia. Honetan euskaldunondako interesekoa bada eskeini zuen Iruñeko egoera linguistikoaren ebazpena, behin baino gehiagotan aipatu izan dena han eta hemenka: «Los vecinos habitantes y moradores de Pamplona usan en sus tratos y contratos cuatro lenguas, tres son del país vasco



navarro y la cuarta es la francesa, que sirve de auxiliar

en el comercio y relaciones con el vecino imperio. La ciudad es el centro de las tres zonas de lenguas», eta honen adibide-tzat: «Jaingoicua ematen badit / Neri osasuna / Orañik izango det / Andregay bet ona».

Perikoren lanik ezagunena, ordea, bere *El Pamplonés* aste-karia dugu. 1864. ez geroz igandeoro ateratzen zena. Aldizkari honen ostean *La arroba de risa* izenekoa atera zuen. Urte hartan ere, *La cartera del rústico: costumbres populares de navarra y su capital*.

Zetozen urteetan lan ugari atera zituen: *Noticia del Ilmo. sr. D. Arnaldo de Barbazano, obispo de Pamplona por espacio de 38 años 1865. ean. Programa de los fuegos de pirotecnia civil 1866. ean. El pamplonés: fiestas del año 1867. edota 1871.eko Cantares de las fuentes de Pamplona y sus arrabales*, hiriko 31 iturriek eskeinia. Iruñeko N. Goienetxe baitan 1868. ean argitaratu emaniko *La cartera de un navarro; libro destartado y curioso: comodidad, utilidad e instrucción. Manual indispensable en las oficinas y comercios de todas clases consultor interesante para los viajeros y muy necesario en el hogar doméstico por la copia de datos que se encuentran reunidos y son de utilidad liburuan ere euskararen aipamena bazekarren: «Se atribuye a Tubal la fundación de varias poblaciones como Tudela y Tafalla, etc. todas de dudoso origen. Mas las academias de ciencias, en las investigaciones que han practicado acerca de las lenguas, han manifestado que el vascuence o lengua euskara es un dialecto del fenicio; si es así nos cabe la satisfacción de poseer el idioma más anciano del país». Urte honetan ere *Navarra jovial: costumbres del siglo XIX* atera zuen, non gabon kanta hau jarri zigun: «Iru erregueac / Etorri ciren / Jesusen adoracerá / Guk eré badá / Emenchen gatóz / Berroyen copelacerá (sic) / Piperrarequin especie / Aragoatic ecarrié / Nausi Jauná / Eman bizagú / Itce etsáteco licencié».*

etorri ahalean

Patziku Perurena



Sotanetatik pilota

EUSKARAZKO «PILLOTA» hitzak, nafar erromantze zaharretik sortua behar du.

Haratx zer atera zuen Florencio Idoatek, 1408an Oliteko Jauregia berritzeko lanen artetik: «andaron a facer de fusta el terrado para jugar la peillota». Ez al da gure «pillota» honen oso antzeko? Dena den, hortik ateratzen du, Idoatek, joko honen zale izanen zela Karlos Noblea. Baliteke, baina, lehenagoko sustrai ilunak ditu, gure eskupilotak.

Aipamenik zaharrena 1331koa da: «Pedro de Olaiz carpintero fezo de nueuo en la claustra de los frayres predigadores de pamplona vn tablado para jugar a la palma». Halare, frantsesezko «jeu de paume» hartzen da beti eskupilotaren oinarritzat, izan ere, eskupilota, fraide domingotarrek zabaldu baitzuten Erdi Aroan (XII-XIV) Frantziatik honuntz, batez ere Santiobidea barrera: Paris, Iruña, Santo Domingo... Horratx, beraz, «apez pilotaria» delako leindaren sustrai ongi aztertu gabeak.

Dudarik ez, eskupilota ere, beste joko asko bezala, gizarte osora zabalduko zela gero, halamoduko jendearen eskutik jauntxo-entretengarri. Baina, hirutan edo lautan ehun urte igaro, eta urak bide beretsutik datoz. Isidoro Urtsuak bere estilo xamur horretara Iruñeko Eliz Artxibo Haunditik atera dituen XVII mendeko apez pilotarien kontu bihurriak lekuko. Lehengo batean, Iturengoak berritu nituen. Gaurkoan bertagora natorkizu.

Aresoko elizako benefizioduna zen Pedro Guilleron apez, baina, 1602 urteko udatzen aldera, Leiza abaderik gabe gelditu, eta haren ordezkotza ere berak egiten zuen, Aresotik Leitzara joan etorriak mendiz eginez. bere arkaputza bizkarrean; gorroto izugarria baitzion jendeak.

Azkenean salatu egin zuten, bere izakera beltzarroagatik, esanez; «que dispara a palomas

y otras aves»; *juega a pelota en calças y jubon y otras veces en camisa con mucha nota»; «que ha jugado publicamente en la plaça de Leiza la colación y dineros». Baietz, apezak, baina: «que a nappes solo juega en la posada donde se hospeda». (Leitzako kontzeju zaharrean, Txatxunen); «que tiene permiso del Ordinario para llevar arcabuz, para defenderse de sus enemigos» eta holako zuzenketak eginez bere buruaren defentsan. Halare, sententziak zorrotz eskatzen dio: «que no juegue a pelota en lugares publicos ni a ningun otro juego en tabernas».*

Horratx, gaurko leienda, orduko bizimodu: apezak pilotari, chiztari, jokuzale, gonazale... Leitzako «Abaden Gurutzea» lekuizena datorkit gogora. Elizako auzi gehienetan kontu berdintsuak gailentzen dira. Bistan da, garai hartako jitorik haundiena, zentzurik osoeanean, apez zela gure herriotan. Zaltetan horiek eta antzeko beste hainbat beregan nahasten dituenari, ongi baitatorkio oraindik «ijito» gaitzizena. Zergatik ote? Neure obsesio hutsa dela? Baliteke, baina, ez kendu obsesio (intuizio?) ederrok niri, bestela, betiko leienda asperretan galduko naiz eta.

Hala dio J.J. Arazurik: «Aprobecando uno de los muros del baluarte de Labrit como frontis o rebote, desde la tercera decada de nuestro siglo fue utilizada como fronton. Posteriormente se adecento el lugar y se aliso el suelo. Como los clientes más asiduos fueron siempre los gitanos, los castizos bautizaron al rebote con el gracioso título calóvasco de «Gito-Alai».

Salbuespen ttar bat, esanen duzu. Ez nik. Erdi Aroko domingotar haiengandik hasi, eta egundainoko euskal pilotaren historia genealogikoa eginen balitz, jito kastakoak nabarmen gailendu baietz eginen bainuke apustu. Oraindik nabari du txapeldunenetik hasi eta afizionatuetan dabilzan gazteetara iritsi arte.

Ziria

• Motxorrosolo •

Elkar susta

KONTU HISTORIKOA DA. ERDARA BALIATU EUSKARA SUSTATZEKO. Inoiz ere, eztabaida iturri. Tenore honetan, bestelako pleguak bizi dira. Molde zaharrek bere horretan badiraute ere, oraingoan euskara darabilte erdara sustatzeko, nagusiki, erdaraz izanen baita eguneroko berria. Euskara sustatuko duen erdara nonbait.

Patxi Huarte

Komikigilea

«Komiki bilduma honetan ideologia nabarmena da»

TMEO aldizkariak urtean bitan gaztelaniaz kaleratzen duen bildumak Patxi Huarte komikigilearen lanak bildu ditu Zaldi Eroa izenburupean. Zaldi eroa baita Patxi gizartean ikusten duen hainbat gertaerez eta pasadizoez iseka egiteko erabiltzen duen aitzakia. Berak dioenez, ideologia nabarmena da bere lanean.

HONETAZ ETA HARTAZ MINTZATZEA gustuko duen arren, komikigintzaz hitz egitean ez du jario handirik. Dena dela, umore burutsuaz erantzuten dio itaundutakoari.

■ **TMEO-ren azken bilduma bete du zure lanak. Norbait salbatu da zure ironiatik?**

Bai, jende asko. Atera direnak, batez ere, poliziak dira. Anarkista naiz, gutaz eta gure saltsez barre egiten dut. Gainera, ohartu naiz nire karrikatura eta guzti atera dudala. Bestalde, konturatu naiz ez dagoela eskuineko ideologiaren arrastorik, eta ez naizela inorekin sartzen zuzenean. Gauza abstraktuez egiten dut iseka, eta poliziak, militarrez eta erlijioaz. Bilduma nahiko biguna da.

■ **Zer-nolako harremana du Patxi Zaldi Eroa-n sortu dituen pertsonaiekin?**

Batekin oso zuzena dut, nire karrikatura delako. Lehendabiziko pertsona kontatzeko aitzakia da. Bestela, pertsonaia gutxi ditut. Noski, Jator da nire euskaltasuna biderkatua, eta ez dut beste pertsonaia aesanguratsurik. Bilduman ez dago pertsonaiairik. Bakoitzak bere pertsonaia du edo pertsonaiairik gabeko istorio solteak dira.

■ **Inspirazioarekin erraz egiten duzu topo?**

Bai, oso erraz aurkitzen dut.

■ **Beraz, paper zuriaren aurrean usu jarri beharrak ez zaitu izutzen?**

Ez, batere ez. Batzuek diote musak eta inspirazioa izan badirela, baina lanean harrapatu behar zaituztela. Beti izan ditut

gidoiak marrazteko, eta ez badut gehiago egiten da lan asko eramaten duelako marrazteak. Gainera, azkeneko momentuan egiten dut maiz lana. Eskatutakoa igorri baino bi egun lehenago egunkariko berri xebreraren bat hartu eta haren inguruko ipuin bat egiten saiatzen naiz. Irakaspen baten bat sortzen dut.

■ **Beraz, zure tirak moralistikak dira?**


Bai. Komiki bilduma honetan ideologia nabarmena da. Beti sartzen dut ideologia, oso zolia eta zeharkakoa bada ere. Ez zait gustatzen gauza panfletarioak egitea. Dogmak ez ditut maite, eta horiek mantentzenko lanik ez dut egiten. Hala ere, nire kritikaren oinarrian ideologia dago.

■ **Nafarkaria-ko irakurleek ostiralero Maikel eta Primitiborekin egiten dute topo. Dena den, berriki Maikel akabatu egin duzu. Zerbait berria eskaini behar duzu?**

Nire ustez jendea aspertu egin da Maikel eta Primitiboren asteroko agerraldiekin, eta horrela esan didate adiskide batzuek. Uztea pentsatu nuen, baina gero otu zitzaidan moldatzea, eta, orain, berragiztatzearen idela lantzen ari naiz. Horrekin jokatu dut, baina epe laburrean ez bada deus onik ateratzen, utzi egingen dut.

■ **Kritika sotila bada ere, kritika egiten duen batek erraz onartzen ditu kritikak?**

Bai, oso erraz. Min egiten didate, baina nahiago ditut kritikak alabantza hutsalak baino.



● MIKEL SAIZ

soslaia

■ **Pentsatu duzu zure komikiak Interneten nabigatzen jarritzea?**

Ez dut pentsatu. Internet apenas erabiltzen dudana. Aurkitu nuenean izan nuen bolada bat asko erabili nuena, baina orain oso motel doa, eta garestia da.

■ **Beraz, ez da baliagarria zure lanerako?**

Bai, oso egokia da mezulari lanak eta etxetik lan egiteko. Dena dela, Interneterako web orrialdeak egiten badituz ere, iruzurra da.

■ **Hortaz, latza da umoretik bizitzea?**

Bai, ziur naiz oso latza dela. Ni ez naiz umoretik bizi, umorearekin jasotzen dut nire soldataren %7.

■ **Umoreaz landa, idazten duzu. Behar askotako gizona zara.**

Bai, idazten dut, eta ez dut uste hain gaizki egiten dudunik. Dena den, marrazkigile eta idazle baino gehiago irakurle eta *voyeur* naiz. Beti esan izan dut oso gustuko istorioak irakurtzea zein zineman ikustea. Dena da gauza bera, istorioak kontatzea. Are gehiago, pentsatzen dut komikiak egitea idazle izatea dela. Gauza bera egin behar

Euskalerrira Irratiko teknikari izana urte frankotan, artikulu eta ilustrazio egile, idazle... ofizio askotako gizona da Patxi Huarte iruindarra. Astero orriotan irakurleari umore keinu bat egiten badio ere, euskaldunberria izanik, bere burua gaztelaniaz erosoago ikusten duela aitortu du.

TMEO-n bildu dituen umore puska azken bost urteetan han eta hemen argitaratutakoak dira, eta gehienak gaztelaniaz idatziak badira ere, euskaraz argitaratutako baten batzuk ere jaso ditu. Patxiaren esanetan, bere lanaren ikuspegi orokorrago bat izateko aukera da argitaratutakoa.

Etorkezunerako asmorik ez duela esan badu ere, eleberri bat idazteko ideiak biltzen ari da. Denbora eta historia ardatz dituen saiakera bat egitea gustatuko litzaioke, Egiptoko obelisko ibiltaria marka bezala hartuz, istorio txikiak idatzi. Berea saiakera poetikoa izanen omen litzateke. «Oharra hartzen eta ikertzen ari naiz, baina ez dakit noiz idatziko dudana», esan du.

duzu, istorio bat kontatu.

■ **Zer geratzen zaizu arakatzeko?**

Dena, dena dago irakurtzeko eta moldatzeko. Dena esana dago, baina dena kontatu daiteke modu ezberdin batean, eta horretan ari gara denok. Eleberri bat kaleratzen denean seguru nago hori mila bider kontatu dutela beste eleberri batean, baina beti beste modu batean izanen da. Historia bera beste modu batean kontatzea da, eta

horrek badu bere xarma eta garrantzia.

■ **Nola definituko zenuke zure umorea?**

Azkarra eta britainiarra.

■ **Jarri adjektiboak.**

Zolia eta fina. Gordina ez, egozia baizik.

■ **Etorkezunerako baduzu planik?**

Ez dut bat bera ere. Sekulan ez dut izan etorkizunerako planik.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria


Egunkaria

• ostirala • 1998ko azaroaren 27a

BEKARIO!

patxi@earthling.net

Maike!
BEKARIOAREN
BERRARAGIPENAK
LABURBILDUZ:
Bekariak hil
eta txakurtxo
moduan
Berraragiratu da.
Hemen!



Nafar Kronika

Pello Goñi

Eskalea

GAUR ISTORIO BAT KONTATUKO DIZUET, aspaldian gertatua, hiriko jendea zur eta lur utzi zuena. Gaur egun bezalaxe, garai hartan ere loteriaren antzeko zozketa bat egiten zen Eguberrietan. Zerri bat zozketatzen zen, edo axuri pare bat. Halere, behin batean erabaki zen saridunak hiriko Jauntxoarekin afaltzeko eskubidea eskuratuko zuela, eta afariak ziraue-no nahi adina eskatzen ahalko ziola. Zoriak pobreetan pobreenari eman nahi izan zion saria. Abiatu zen gure eskalea Jauntxoaren jauregira, irabazitakoa jasotzeko asmoz. Abegi ona egin zioten. Bainu bat har arazi eta gero, atorra berria eskaini zioten. Gisa hartan joan zen Jauntxoarengana. Galeper pare bat erreta atera zioten, eta orduantxe egin zuen lehen eskaria: etxe eder bat haren galsoro eta mahastiekin. Jauntxoak keinu bat egin zion eskribauari aktan agertarazi zezan. Bigarren eskaria faisalarekin batera etorri zen. Etxea behar bezala gobernatzeko andre bat behar zuen. Jauntxoak neskamean artean hautatzeko esan zion. Erabaki orduko, azken platera ekarri zuten: txerrikumea. Eskaleak Jauntxoaren begietara zuzen-zuzenean begiratu eta hirugarren eskaria egin zuen: kintal bat urre. Jauntxoak hau ere onetsi zuen jokua amaitutzat emanez. Baina postrea falta zen. Eskaleak hatz erakuslea jaso eta esan zion: «Jauna, oraindik ez dugu bukatu, beraz, badut azken eskaria egitea. Jasotakoa balio handikoa da, baina defenditzeko zeure gudarien erdiak beharko nituzke». Jauntxo sutu egin zen, eskalea akabatu nahi zuen. Artzapezpikuak hitza betetzeko agindu zion. Gero gertatu zena ez dago garbi, baina batzuk diotenez, gerla ikaragarria hasi zen eskale eta Jauntxoaren artean, hamar urtez iraun zuena. Eskaleen aldekoak garaile izan ziren eta hortik omen dator gure erresumako lehen dinastia. Alan bazan, ezpazan, sartu zerilla, kalabazan, erta urten detela, Durangoko plazan.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Pablo Sarasate Orkestra, Iruñeko Orfeoak eta Iruñeko Katedraleko musika kaperak kontzertuan etzi, 11:00etan, Done Saturdi elizan.
- **Etxarren:** Behin betiko, Iheitz eta Sakatrik taldeen kontzertua bihar, pilotalekuan, 24:00etan.
- **Gares:** Gariren mintzaldi-kontzertua gaur, 21:30etan, udaletxeko erabilera anitzetako aretoan.
- **Berriozar:** Oskorriren emanaldia bihar, 20:00etan, Mendialde ikastetxean.

ANTZERKIA

- **Zizur Nagusia:** L' Home dibuixat taldeak *Súbete al carro* lana aurkeztuko du gaur, 20:00etan, Kultur Etxean. AZ Produccionesek, berriz, *Misterio bufo* lana taularatuko du datorren astelehenean, 20:00etan, Kultur Etxean.
- **Berriozar:** XXL taldeak *Melilla tuvo que ser* lana taularatuko du etzi, 19:00etan, Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Teatro Adrok *Nano* lana antzetzuko du bihar eta etzi, Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:00etan.

BESTELAKOAK

- **Agoitx:** XXI. mendeko akordioa, bai euskarari! kanpainaren herri batzordeak antolatuta, hitzaldia izanen da gaur, Udaletxeko Kultur Aretoan. Horretan hizlari izanen dira Asis Arbide Kontseiluko zuzendaritzako kidea, eta Gontzal Agote, kanpainaren Nafarroako koordinatzailea.
- **Iruñea:** *Ficciones hechas carne. Cuerpos sexuales e identidades de sexo al filo del siglo XXI* hitzaldia eskainiko du Lourdes Mendez antropologoak gaur, 12:00etan, Gurbitzak

eraikineko Nicolas Oresme gradu aretoan.

► **Zangoza:** *Prevención para la depresión* hitzaldia emanen du Fernando Trebol psikologoak

datorren asteartean, 20:00etan, Jubilatuen aretoan.

► **Iruñea:** Gaztediaren Etxeak bi mintegi antolatu ditu, bata

ikasten ikasteko eta bestea kutxatilak egiteko. Biak abenduaren 14tik 23ra arte iraunen dute. Informazioa: Zangoza kaleko 30ean.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Ameriketean, basamutilok urte batez aritzen ginen oiha-nean, inor ikusi gabe. Nagusia heldu, paga ekarri, eta bihar-munean kamioneta bat neska eta whiskey etortzen zen. Askok aste batean urte guztiko sosa akitzen zuten. Nik ez. Nik nire maiteñoaren urrina fresko nuen.

Migel Erro Usi

USI VS. USA